

HAUTA LANERAKO EUSKAL HIZTEGIA

1. tomoa: A - Aurten

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko Ordezkararen hitzak

Arratsaldeon, jaun-andereok! Eta eskerrik asko *hauta lanerako euskal hiztegia*-ren aurkezpen honetara etorri zaretelako. Ibon Sarasolak daraman lana duzue hau eta honetarako Koldo Mitxelenaren lankidetzeta eta aholkularitzarekin kontaktzen du.

Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialak babestu eta argitaratzen du lan hau. Hori dela eta, argi eta garbi diogu lan honen argitaratzea benetan garrantzi handikoa dela. Garrantzi handikoa, ez prexiso gure hizkuntza eta kultur ondarearen kutxan obra bat gehiago sartzen delako. Ez horregatik bakarrik. Garrantzitsua da, batez ere eta funtsean, hiztegi honek euskararen finkapen eta aurrerapenari begira ekarpen erabakiorra suposatzen duelako. Hau da arrazoi nagusia. Zentzu honetan, gaurko egin-tza hau, jendeari lanerako eskaintzen zaion lan-prozesu luze eta aberats baten lehen emaitza da, ondoko urteetan segida izango duena.

Egokiera dugunez gero, ez genuke esan gabe utzi nahi, alegia Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala beti egon dela kezkatua euskararen sustaketari dago-kion guztian.

Gauza jakina da, bestalde, Kutxa finantz erakunde bat dela eta beraren egink-i-zun nagusia, noski, gehienbat ekonomikoa dela. Arazo ekonomikoek, batzutan, ez daukate zerikusi handirik kultur mailako planteamentuekin. Zentzu honetan, ordea, esan behar da gure erakundea asko saiatu dela, berak ahal izan duen neurrian saiatu ere, bi helburu horiek, ekonomikoa eta kulturala, batera bideratzen eta herriaren zer-bitzura jartzen. Euskarak, gaurregun, garrantzi handia du Kutxaren bizitza finantzarioan. Euskara sartuta dago erakundearen antolakuntzan bertan, zerbitzu-sailean eta baita gestioan ere.

Inguruan daukagun gizarte honi egunero eskaintzen zaion zerbitzu honen barruan euskara presente baldin badago ere, aipagarriena, Kutxaren alderdi soziala bera da, gizarte-helburu honek ematen bait dio bere esanahi beteak kultur zeregin osoari.

Honela, euskal kulturaren arazoa, gizarte-ekintzaren ikuspegitik begiratzen bada, esan behar da beharizan kolektibo asko daudela egiteko eta mota askotakoak, gainera. Hor daude, batzu aipatzeko bakarrik, asistentzia lana, ikerketa-lana edo irakaskuntzarena, eta besterik. Kutxa, guzti hauetan hor baldin badago ere, batez ere euskararen aldeko iharduera-mota desberdinetan dago, esaterako: sorkuntza-sailean,

argitalpenetan, kultura gizarte-maila guztietara zabaltze-lanean eta, bereziki, gazteen artean, irakaskuntzan eta herri-mailatik datozen inizatiben sustaketa eta laguntzan, eta antzekoetan.

Hemen laburki azaldu ditugun ideia solte hauek aski dira guk lana nolako erizpideren arabera egiten dugun jakiteko. Lortzen diren emaitzak, positiboak direla uste dugu. Gure lanaren jarraitasun honen barruan, egiten diren lan guztiak garrantzitsuak badira ere, liburu honen aurkezpenak esanahi berezia du. Zergatik? Ba, gure hizkuntzaren eboluzioan oinarritzko zutabeak finkatzen dituelako. Oinarri horien gainean eraikiko dira, neurri handi batean, geroko beste lanak.